




basque  
culinary  
center



“IZAN SORTZAILE”  
Gazteak Sukaldean Sortzaile  
lehiaketa

## PROGRAMA "IZAN SORTZAILE"

### "Gazteak Sukaldean Sortzaile" Lehiaketa

Sukaldaritzak gure kulturan duen garrantzia sustatzeko lehiaketa gastronomikoa. 12-16 urte bitarteko nerabeek, aiton/amonen errezetak oinarritzat hartuz, bereganatu eta errezeta berriak asmatzea helburu duen lehiaketa da.

Kultura gastronomikoa sustatzeko, aitzineko aztarnaz baliatuz, eta interjeneralizazioa bide gisa jarraituz, kreatibitatea eta berrikuntza helburu duen ekintza da.

Gure egunerokotasunean teknologia berrien garrantziaz jabetuz, aukeraketa prozesua online izango da. Bideo kreazioak arte berri baten adar bat bezala identifikatuz, lehiaketarako lehen faserako aurkezpena bideo baten grabazioan oinarritzea proposatzen da.

Lehiaketak, talde lanean eta sari konpartitu batekin, konpetitibitate osasuntsu eta positibo bat lantzea du helburu. Taldean aurkeztutako lanen artean, finalera iristen diren guztiek sariaz gozatzeko aukera izango dute. Saio ludiko didaktikoa den sukaldaritzaren ikastaro batekin, kultura gastronomikoan murgiltzeko saria alegia.

***Gastronomia + Antzina + Interjeneralizazioa + Kreatibitatea + Berrikuntza + Talde Lana + Teknologia berriak + Artea + Errezetak + Konpetitibitate positiboa + Kolaborazioa + Konpartitzea + Sari didaktiko ludikoa***

#### **Helburuak:**

- Kultura gastronomikoa sustatzea.
- Sukaldaritzaren balioak ezagutzea.
- Baloreak transmititzea.
- Interjeneralizazioa sustatzea.
- Tradizioa ezagutzea.
- Tradizioaren oinarrietatik berrikuntza sustatzea.
- Taldean lan egiten ikastea.
- Teknologia berriak lantzea eta hauek duten garrantziaz jabetzea.
- Euskara komunikazio tresna bezala jabetzea.

#### **Metodologia:**

Euskal erkidegoko eskola guztietan (300 inguru) eta jendartean deialdia zabaldu.

Bertan oinarriak azalduko dira.

### **Oinarriak:**

- 12-16 urte bitarteko nerabeek osatutako taldeak.
- Taldeak 2-4 pertsona bitartekoak izan beharko dute.
- Aukeratutako errezeta, aitona/amonen errezeta batetik oinarrituak izan beharko dute. Errezeta bereganatu eta berri bat osatu beharko dute aldaketa justifikatuz.
- Errezeta bideo motz batetan burutu beharko dute (3 min minimo eta 6 min maximo). Bertan, jatorria, zergatia, errezetaren pausuak eta erabilitako produktu/tresneria, eta platera amaitua azaldu beharko da. Horrekin batera, errezeta emailez bidali beharko da.
- Bideoak Euskara hizkuntza oinarritzat izan behar du.
  
- Bideoa Youtuben sortutako kanal batetan zintzilikatu beharko da.
- Bideoa zintzilikatzeko eta errezetak bidaltzeko epean bidali.

### **Balorazioa irizpideak:**

#### Publikoa:

- o Youtube orrialdean "Atsegin" gehien dituen bideoak 15 puntu jasoko ditu.
- o Youtube orrialdean gehien ikusi den bideoak 10 puntu jasoko ditu.

#### Teknikoa:

- o Errezetaren jatorria eta honen azalpena (10 puntu)
- o Jatorria eta berriaren lotura (10 puntu)
- o Errezetaren berrikuntza maila (10 puntu)
- o Errezetaren kalitatea eta oreka (20 puntu)
- o Erabilitako teknikak (20 puntu)
- o Erabilitako produktuak bertakoak eta garaikoak izatea (15 puntu)
- o Errezeta idatziaren kalitatea (15 puntu)
- o Plateraren aurkezpena (20 puntu)
- o Talde lanaren maila (15 puntu)
- o Bideoaren kalitatea (7 puntu)
- o Puntuazio berezia (20 puntu)

Eskualde bakoitzeko bideo bat aukeratuko da.

Probintzi bakoitzeko eskualdeko irabazleak Basque Culinary Centerren beraien errezetak aurkeztuko dituzte ekitaldi final berezi batean.

Talde bakoitzak bere errezetak burutu beharko ditu bideoan aurkeztutako moduan. Horretarako behar dituzten produktuak eta tresneria berezia ekarri beharko dituzte (BCCk oinarritzko tresneria jarriko du).

3 Epailez osatutako epaimahai batek probintzi bakoitzeko 3 errezeta aukeratuko ditu irabazle: 2 momentuan eta 1 aurretik aukeratua izango da (ekitaldiko koktelean dastatzeko aukeratuak).

Ekitaldi aurretik aukeratutako 3 errezetak koktelean dastatzeko aukera izango dugu (BCCk koktelarako errezetak moldatzeko eskubidea izango du).

Aukeratuak, guztira 9 talde, saria jasoko dute ekitaldi berezian. Gonbidatuak partaideen familia-kideak izango dira, talde bakoitzak 4 gonbidapenekin.

Saria:

*Probintzi bakoitzeko talde irabazle bat izango da. Irabazle guztiek, beraientzako espresuki diseinatutako ikastaro batetan parte hartzeko saria jasoko dute.  
(16/07/2016)*

**Baliabideak:**

Diptikoak: Oinarriak eta pausoak.

Web orrialdea.

Sukaldea duten 3 espazio BCCn

Ekitaldia burutzeko espazioa, sukaldeak eta produktu eta tresneria

Saria izango den Ikastaroa.

**Kronograma:**

2016/03/23 Web orrialdea zintzilikatu

2016/05/23 Parte hartzeko azken eguna

2016/05/25 Eskualde bakoitzeko aukeratuak

2016/06/04 Ekitaldi finala Basque Culinary Centerren

2016/07/16 Irabazleentzako ikastaroa

